

**JARRAIPEN TXOSTENA.
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Kurtsoa 17-18

JARRAIPEN TXOSTENA

TITULUA:

IZMI 4312397 - **HEZKUNTZA-ERAKUNDEETARA BIDERATUTAKO BERRIKUNTZA METODOLOGIKOA
UNIBERTSITATE MASTERRA**

KURTSOA: **17-18**

ARDURADUN ZENTRUA: **HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

DATA: **2019-02-28**

Indizea

1.-SARRERA	4
1.1 TESTUINGURUA	4
1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA	4
2.- TITULUA BALIOESTEA	5
I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA.....	5
II.- DIMENTSIOA: BALIABIDEAK.....	8
III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK	13
3.-HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARGUNEAK. JARRAIPENA (Barne Kudeaketa).	16
III.1.HOBEKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA.....	16
III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	17
III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK.....	17
4.- TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK	20
IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK.....	18
IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK	18
IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK.....	18
ERASKINA	19

1.-SARRERA

1.1 TESTUINGURUA

Master hau 2010-2011 ikasturtean ezarri zen eta 2011-2012 ikasturtetik aurrera urtero bidali dira dagozkion jarraipen txostenak Unibasq-era. 2014-2015 ikasturteko Jarraipen Txostenaren ebaluazioa jaso genuen. 2015-2016 ikasturtean akreditatu zen masterra. Akreditazio txostena positiboa izan zen, eta bertan zehazturiko hobekuntza proposamenen jarraipena orain dela bi urteko Jarraipen Txostenean bidali ziren.

1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA

2013-2014 ikasturtean Jarraipen Txostenen egitura aldatu genuen. Egitura hau akreditazio txostenen egiturara hurbiltzen da, eta, honela, Jarraipen Txostenen eta akreditazio prozesuen erlazioa eta koherentzia bermatzen da. Akreditazio txostena, azken urteetako Jarraipen Txostenen edukiaren bidez osatu ahal izango da, eta titulazioaren bilakaera osoaren ikuspegia izango du.

Honela, 2015-2016, 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetako Jarraipen Txostenak egitura berdinarekin arabera gauzatu dira.

Bestalde, kontuan izan dugu Unibasq-ek 2016ko martxoaren 9an ateratako ebazpena eta eguneratu dugu protokoloa honek eskatzen dituen eduki eta adierazleekin.

Txostenean hiru dimentsio aztertu dira: lehenik, alderdi kualitatiboak dagozkienak, eta, ondoren, alderdi kuantitatiboak kontuan izanda. Jarraian, hobekuntza proposamenen eta indarguneen jarraipena egin da. 4. Puntuan, tituluaren egindako aldaketak jasotzen dira eta, azkenik, adierazleen azterketa egiten da.

2.- TITULUA BALIOESTEA.

I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA

I.1.-IRIZPIDEA: ANTOLAMENDUA ETA GARAPENA

I.1.1.-Ikasketa-planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako helburuen profilarekiko koherenteak dira.

Edukien eguneratze prozesu baten barruan sartzen dira egindako egokitzapenak, beti ere, hasieran jarritako helburu eta edukiei jarraipena ematen zaielarik.

I.1.2.-Definitutako egreso-profilak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremi akademikoaren, zientifikoaren eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

Audit izateagarik eta ez beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.1.3.-Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitzak lortzea ziurtatuz.

Tituloaren koordinazio mekanismoa hauexek dira:

- Graduondoko lantaldea: Talde honetan HUHEZIk ditun graduondoko koordinatzaileak biltzen dira gestio akademikoko zuzendariarekin gestio alderdi komunak kudeatzeko asmoetan. Hantxe graduondo bakoitzeko ikasketa plangintza ere errabisatzen da eta ekarpenak jasotzen dira. Bilkurak hilabetean behin izan dira.
- Master koordinazio batzordea: Batzorde honetan masterrarekin lotutako ikertaldeko koordinatzaileak biltzen dira mastera kudeatzeko helburuarekin. Batzorde honek masterrak hartzen duen bidearen ildo estrategikoak ere markatzen ditu beti ere graduondo taldean zehaztutako arabera.
- Tutore mintegia: Bilkura honetan masterrak dituen materia guztien irakasleak biltzen dira masterraren jarraipena egiteko. Hantxe koordinatzen dira kompetentzien lanketak, ikaste emaitzen lorpenak eta sekuentzializazioa, materiek duten lan karga, ikasleen jarraipena, materrean dauden hobetzeak. Bilkura honen baitan masterrak dituen ibilbideetako materien arteko koordinazioa ere bermatzen da.

I.1.4.-Aplikaturako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.

Errespetatu egiten da, orain arte eskaintza eskaeraren gainetik egon da.

I.1.5.-Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetuz ahalbidetuz.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.2-IRIZPIDEA: INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

I.2.1.-Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriak eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.2.2.-Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.2.3.-Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua ekuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.3-IRIZPIDEA: KALITATEAREN BARNE BERMEKO SISTEMA (KBBS)

I.3.1.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorrean kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.3.2.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen-,aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objektiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

I.3.3.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

"TITULUAREN KUDEAKETA" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA

AZPI-IRIZPIDEA		A	B	C	D
I.1.1	Ikasketa Planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekiko koherenteak dira.	✓			
I.1.2	Definitutako egreso-profikak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren zientifikoarekin eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratua dago.	✓			
I.1.3	Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaizak lortzea ziurtatuz.	✓			
I.1.4	Aplikaturako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetze dute eta haiek aplikatzearekin egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.	✓			
I.1.5	Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetzea ahalbidetuz.	✓			
I.2.1	Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa egokia eta eguneratua argitaratzen dute.		✓		
I.2.2	Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.		✓		
I.2.3	Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.	✓			
I.3.1	Kalitatearen Barne Bermerako Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorrean kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.	✓			
I.3.2	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen,-aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objektiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.	✓			
I.3.3	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.	✓			

II.- DIMENTSIONA: BALIABIDEAK

II.1.- IRIZPIDEA: LANGILE AKADEMIKOAK

II.1.1.- Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza-etaikerketa-kalitatea egokia ere.

Gradu-ondoaren izaera bermatzeko, maila akademikoan eta definitutako konpetentziekiko irakasleen esperientzia profesionala, ikertzaile zein hezitzaile bezala egokia da.

Era berean, kanpo praktikak tutorizatzen dituen pertsonal akademikoak esperientzia profesional egokia eta nahikoa du. Orobat master bukaerako lanari dagokionez, pertsonal akademikoak ikerketa esperientzia egokia eta nahikoa du. Hortaz gain, masterreko pertsonal guztiak dauka izendatuta ordu kopuru zehatz bat lanak tutorizatzeko.

Pertsonal akademikoaren egituran ez da aldaketa esanguratsurik eman Gradu-ondoan ezarpenetik. Egon diren moldaketak pertsonal akademikoari dagozkion ohiko aldaketak izan dira.

II.1.2.- Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.

Urte urte gradu-ondoa baldintza berdinetan emateko aukera errazten duen pertsonal akademiko egongokorra daukagu. Irakaskuntzari dagokionez lan kargaren esleipena kooperatibako barne araudiaren arabera esleitzen da.

II.1.3.- Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

II.1.4.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.

Egiaztapen memoria ez zen puntu honi buruzko gomendiorik ezarri.

II.2.-IRIZPIDEA: LAGUNTZA-LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

II.2.1.-Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

Titulazioaren sostengua zerbitzuei dagokionez hiru arlo handitan banatzen da. Honakoak dira:

1. Zerbitzu akademikoak: ikasle eta irakasleen zerbitzura dago eta ikaste irakaste prozesuaren kudeaketa akademiko-administratiboaren ardura dauka (espediente akademikoak, kalifikazio aktak, kredituen errekonozimendu eta transferentzia, notak, ziurtagiriak, Master Bukaerako Lanak, ...).

2. Administrazio eta finantza arloak: finantza eta ekonomia baliabideen administrazio, kudeaketa eta jarraipenarekin zerikusia duten betebeharrak kokatzen dira hemen. Balantzearen oreka, fidagarritasuna, zinezkotasuna eta legalitatea bermatzea dagokio eremu honi. Baita sarrera eta irteeren kontuak, diru fluxuen egoera, zergen kudeaketa eta beste tramite fiskalak. Era berean, materialen inbentarioaren doikuntzaren eta produktu eta zerbitzuen planifikazio eta erosketen kudeaketa ardura izango du. Bukatzeko, administrazio socio-laboral egokiaren bermatzaile da, langile, bekadun, azpi-kontratadun, onuradun eta ikasleen legezko estaldura eta gizarte prestazioa ziurtatuz.

3. Baliabide didaktiko materialen arloa: eraikinen kudeaketari dagokion alderdi guztiak kokatzen dira hemen. Gela eta multimedia guneen mantenu eta ekipamendua, garbiketa zerbitzua, informazioa, telefonia, azpiegitura teknologiko eta informatikoak... baita, baliabide didaktikoen kudeaketa, hala nola, Biblioteka erabilera didaktikoan duten beste baliabide teknologikoen (portatilak, kamarak, gelak, ...) mailegu zerbitzua.

II.2.2.-Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluan progrmatutako prestakuntza-jarduerei egokitu daude.

Fakultatea 2 campusek osatzen dute: Aretxabaletan bat eta Eskoriatzan bestea. Eskoriatzako campusa bi eraikinek osatzen dute, Dorletako eraikinak 2000m² ditu (500m² soilaruko) eta Nagusiak berriz, 5544m² (1848 m² solairuko). Aretxabaletako campusari dagokionez, fakultatearen eraikinak 3228,69m²ko hedapena du (1219,13m² ditu beheko solairuak eta 955,82m² 1. eta 2. solairuek). Eraikin hau 2012-2013 ikasturte akademikoan inauguratu zen. Fakultateko ikasle guztiek bi campusetako zerbitzuak erabiltzeko aukera dute.

Bi campusek betetzen dituzte irisgarritasun eta segurtasun arauak eta komunak zein igogailuak daude denontzako erabilgarri. Eskoriatzako kanpusean, Nagusia eraikinean igogailua solairu guztietara iristen da eta komun egokituak daude solairu guztietan- Dorleta eraikinean ere, igogailua solairu guztietara iristen da eta komun egokituak daude behe eta bigarren solairuan. Aretxabaletako kanpusari dagokionean, hiru salairuetara iritsen den igogailua dago eta egokitutako komunak ere hiru solairuetan daude. Ikasle zein langileen sarbidea kontrolatuta dago bi kanpusetan txartel elektronikoaren bidez.

Mantenimendu zein errebisio mekanismoak bermatzeko, fakultateak S.2.1 prozesua (Zerbitzu, ekipamendu eta instalazioen kudeaketa) du. Prozesuaren helburu nagusia da planifikatzea eta bermatzea HUHEZIK eskaintzen dituen zerbitzu zein ekipamendu guztiak ikaste-irakaste prozesuen garapenerako modu egoki baten eskaini eta mantentzen direla.

II.2.3.-Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzialen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira.

Tituluko ikasketak egiteko online prestakuntzako urruneko modalitate bat dago. Prestakuntza hori emateko, Moodle plataforma bituala eta Adobe Connect gela birtualeko programa erabiltzen dira. Azpiegitura teknologikoa ingurune seguru eta fidagarri batean ostatatuta dago. Konexio-abiadura egokia da proposatutako prestakuntza-jarduerak behar bezala garatzeko. Eta plataformak ahalmen nahikoa du matrikulatutako ikasleen taldeari euskarria emateko. Sarbide errazeko sistema da, eta erabilerraza. Masterraren urtez urteko edizioetan zehar, hainbat hobekuntza egin dira erabileraz eta hasierako sarbidez erabiltzaileei ematen zaien informazioan. Besteak beste, "Ezinbestean jakin beharrekoak" izenburuko koordinazioko Moodle ikastaro bat txertatu da plataforman, eta horren bitartez: a) plataformako tresna digital ohikoenei buruzko informazioa eskaintzen da, eta b) jarduera sorta bat eskaintzen da, harrerako plangintzaren baitan, ikasgaiak lantzen hasi aurretik plataforma erabiltzen ohitzeko. Horrez gainera, MONDRAGON UNIBERTSITATEAren MU Online zerbitzutik ikastaro espezifiko bat abian jarri zuen Moodle plataforman, "Informazio orokorra / Información general" izenekoak. Ikastaro horretan, plataformaren eta haren tresnen sarbideari eta erabilerari buruzko informazio didaktikoa biltzen da. MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasketa erdi presentzialetako eta online modalitateko ikasketetako ikasle nahiz irakasleentzako zabalik dago ikastaro hori. Material didaktikoak online modalitateari egokitu zaizkio eta garrantzitsua izan da egokitzapen honetan multimedia zerbitzuak eskaintako laguntza. Zerbitzu honek bereziki funtzio hauek betetzen ditu: Titulazioko aurkezpen bideoa grabatu, editatu eta mudle-en zintzilikatu, materia bakoitzaren aurkezpen bideoa grabatu, editatu eta mudle-en zintzilikatu, aurkezpen komentatuak grabatu eta editatu, ikastaroak multimediarekin txukundu, azpitoluak gehitu bideoei, ikastaroen itxura koherentea zaindu (etiketak editatu, letra mota eta koloreak zaindu...).

Plataformak eskaintzen dituen tresna digitalak erabiltzen dira irakasleen eta ikasleen arteko elkarreragina sustatzeko eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAren hezkuntza-eredua betetzen dela bermatzeko. Jardueren ebaluazioa plataformaren bidez egiten da; hala, ikasleek etengabe dute beren ebaluaziorako sarbidea. Ebaluazio-probetan ikasleen nortasuna ziurtatzeko zenbait mekanismo diseinatu dira: A) Harrerako plangintzan, foroan beren buruaren aurkezpena egiteko eskatzen zaie ikasleei (eta onarpena eskatzeko igorritako curriculumarekin alderatzen da), baita profilean beren argazkia atxikitze ere. B) Ebaluazio jarraituko sistemari esker, irakasleen eta ikasleen arteko etengabeko lankidetzaren eta harremanaren bermatzea da. Horri esker, ikasle bakoitzak ikaskuntza-prozesuan egiten dituen aurrerapenen jakinaren gainean dago irakaslea. C) Master Bukaerako Lana egiteko, harreman estuan dihardute tutoreak eta ikasleak. MBL gela birtualean aurkezten eta defendatzen da, eta saioa grabatu eta gorde egiten da. D) Gela birtualeko saio guztiak tutorearen karpetan grabatzen eta gordetzen dira. Mekanismo espezifiko bat diseinatu zen grabazioen kopiak gordetzeko eta era horretako ebidentziarik gal dadin saihesteko. Egresatuek plataformari buruz duten gogobetetze-mailak bilakaera positiboa izan du, egresatuei dagokienez (egresatuen balorazioa 8,13koa izan da). Bilakaera horretan, funtsezkoa izan da plataforman bertsio berriak ezartzea eta plataformaren sarbideari eta erabilerari buruzko jarraibideak hobetzea. Ebaluazio-probetan ikasleen nortasuna ziurtatzeko zenbait mekanismo diseinatu dira: A) Harrerako plangintzan, foroan beren buruaren aurkezpena egiteko eskatzen zaie ikasleei (eta onarpena eskatzeko igorritako curriculumarekin alderatzen da), baita profilean beren argazkia atxikitze ere. B) Ebaluazio jarraituko sistemari esker, irakasleen eta ikasleen arteko etengabeko lankidetzaren eta harremanaren bermatzea da. Horri esker, ikasle bakoitzak ikaskuntza-prozesuan egiten dituen aurrerapenen jakinaren gainean dago irakaslea. C) Master bukaerako lana egiteko, harreman estuan dihardute tutoreak eta ikasleak. MBL-a presentzialki edota gela birtualean aurkezten eta defendatzen da, eta saioa grabatu eta gorde egiten da. D) Gela birtualeko saio guztiak tutorearen karpetan grabatzen eta gordetzen dira. Mekanismo espezifiko bat diseinatu zen grabazioen kopiak gordetzeko eta era horretako ebidentziarik gal dadin saihesteko.

Egresatuek plataformari buruz duten gogobetetze-mailak bilakaera positiboa izan du, egresatuei dagokienez (egresatuen balorazioa 8,13koa izan da).

Bilakaera horretan, funtsezkoa izan da plataforman bertsio berriak ezartzea eta plataformaren sarbideari eta erabilerari buruzko jarraibideak hobetzea. Hortaz, azpiegitura teknologiko eta material didaktikoak egokiak izan dira prestakuntza-jarduerak garatzeko, tituluko konpetentziak bereganatzeko eta ebaluazio-probetan ikasleen nortasuna egiaztatzeko.

II.2.4.-Eskura jartzen diren laguntzarako zerbituzak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbituzak gaitasunei eta modalitateari egokituta daude..

Audit izateagatik ez da beharrezkoa puntu hau betetzea.

II.2.5.-Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.

Ibilbide profesionala:

Ondorengo ataletan zerrendatu dira BERRIMET Masterreko practicumean lantzea aurreikusten diren konpetentziak eta espero diren lorpen emaitzak:

Konpetentziak

Hezkuntza-berrikuntzarekin erlazionatutako hezkuntza-eremuen identifikazioa egiteko behar diren prozedurak eta teknikak ezagutzea eta aplikatzea
Hobekuntza proposamen zehatzen diseinua egitea erakundeetako hezkuntza testuinguruetan esku-hartze egokiak buru ahal izateko. Beti, kontutan hartuz erakunde horien ezaugarri, behar eta errealtateak erronka berriei erantzuteko.

Proiektu baten garapena, implementazioa eta ebaluazioa burutu ahal izateko tekniken eta tresnen ezagutza eta erabilera.

Ikaste emaitzak

Hobekuntzak egiteko eremu posibleak aurkitzeari begira, ikertzaile aktiboaren lekua hartuz bilaketa eta galdera egokiak egiten daki.

Berrikuntza-proiektuek dituzten faseak identifikatzen ditu.

Berrikuntza arrazoitzeko informazio egokia eta baliagarria eskuratzen du.

Berrikuntza-proiektu bat diseinatzen daki.

Bizipenetatik abiatuta, ezagutza berriak eraikitzen ditu, horiek ikerketa-galdera bihurtuz.

Bizipenetatik eta behaketetatik abiatuta, ebidentziak jasotzen ditu.

Hausnarketarako eta ikerketa-praktikak gauzatzeko tresnak erabiltzen ditu

Ikerketa Ibilbidea:

Konpetentziak

Hezkuntza-berrikuntzarekin erlazionatutako ikerketak egiteko ikergaiak eta hezkuntza-eremuen indentifikazioa.

Ikerketa proposamen zehatzen diseinua, identifikatzen diren ikerketa erronka berriei erantzuteko.

Ikaste emaitzak

Ikerketa egiteko eremu posibleak aurkitzeari begira, bilaketa eta galdera egokiak egiten daki, horretarako ikertzaile aktiboaren lekua hartuz.

Ikerketa proiektuek dituzten faseak identifikatzen ditu.

Ikerketa objektua arrazoitzeko informazio egokia eta baliagarria eskuratzen du.

Ikerketa proiektu bat diseinatu du.
Bizipenetatik abiatuta, ezagutza berriak eraikitzen ditu, horiek ikerketa-galdera bihurtuz.
Bizipenetatik eta behaketetatik abiatuta, ebidentziak jasotzen ditu.

II.2.6.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu dira.

Egiaztapen memoriaz enon puntu honi buruzko gomendiorik jaso, ez eta jarraipen txostenetan ere.

"BALIABIDEAK" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA

AZPI-IRIZPIDEA		A	B	C	D
II.1.1	Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperentzia eta irakaskuntza-eta ikerketa-kalitate egokia ere.	✓			
II.1.2	Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.	✓			
II.1.3	Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.	✓			
II.1.4	Unibertsitateak egiaztapen memoriaz biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			
II.2.1	Prestakuntza jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.	✓			
II.2.2	Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluaren programaturako prestakuntza jarduerari egokituta daude.	✓			
II.2.3	Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzian ematen diren tituluaren kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira tituluari dagozkion prestakuntza jarduerak garatzeko eta gaitasunak eskuratzeko.	✓			
II.2.4	Matrikulaturako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionalako eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokirura daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.	✓			
II.2.5	Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.	✓			
II.2.6	Unibertsitateak egiaztapen memoriaz biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			

III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK

III.1.- IRIZPIDEAK: IKASKUNTZA-EMAITZAK

III.1.1.-Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko egokitu daude.

2010-2011 ikasturtetik on line izaera handitzen joan da, %100era izan arte 2014-2015 ikasturtean. Horrela bada, Masterra %100 online da eta moodle plataforma eta gela birtualaren bidez gauzatzen da. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren antolamendua gure hezkuntza-eredu propioaren irizpideen arabera gorpuzten da. MU online-eko metodologian eta ondorioz BERRIMET masterrarenean ikaskuntza esanguratsua bultzatzen dugu. Ikaslearen ezagutzetatik abiatzen gara eta horretarako, ikasleari eskatzen diogu bere aurrezagutzak azalaratu ditzan, horietaz kontziente izan daitezen, eta beraien ikaskuntza, ezagutza horietan oinarrituz osa dezaten. Gainera, irakasle-tutorearentzat ere lagungarria da ikaslearen aurrezagutzak zeintzuk diren jakitea, ikasleen abiapuntua zein den ezagutzeko aukera ematen diolako. Erabiltzen dugun gida metodologikoak ikaslearen jardura gidatzen du, ikaskuntza lana antolatuz eta gidatuz. Ikasketetako materia bakoitzak gida metodologiko batean zehaztuko ditu ikasleak ikasiko dituen edukiak, garatuko dituen kompetentziak, horiek lortzeko planteatzen diren helburuak, metodologia eta ebaluazio sistema. Horrela eginez gero, gida honen bitartez, ikasleak bere ikaskuntza prozesua antolatu eta autoerregulatu ahal izango du. Irakasleek ere gida bat izango dute modulua/materia/unitatearen irizpide metodologikoak zehazteko, eta bat egingo du ikaslearen gidarekin. Gida metodologiko bakoitza dagokion ikasketa motei egokituko zaie. Materiala ingurune birtualean kokatzen da eta metodologia aktiboak aplikatzen dira. Ingurune birtualean, jarraitzen den helburuari begira, metodologia bat edo beste (arazoetan (AOI), kasuetan (KOI), proiektuetan (POI, ingelesez POPBL) oinarritutako irakaskuntza, tarteko metodologiak...) erabiliko da. Bestalde, ziurtatuko da jardura desberdinak egingo direla, eta ez dela errepikatuko. Metodologiak berak izaera aktiboa dauka eta, era berean, metodologia hauek materietan lantzeko edukiak ere badira masterrean. Hortaz gain, ikaslearen autonomia eta erantzukizuna bultzatzen da. Ikaslea da bere ikaskuntza prozesuaren ardatza eta jarduerak ikaslearen erabakitzeak aukera ematen dute. Ikasleak ikasi behar dituen edukiak erlazionatuak daude prestatzen dabilen lanbiderako beharko dituen kompetentziekin. Curriculumean edukien arteko loturak bermatzen dira, materialek bermatzen dute aurreko edukien loturak egitea. Ebaluazioari dagokionez, lehenengo atala izango da ikasleak ikasketen hasieran duen profilararen ebaluazioa egitea, hau da, gaiarekiko bere aurrezagutzak identifikatzea. Aurrezagutza horiek ezagutzeak aukera emango dio irakasle/tutoreari ikasleak lortu beharreko helburuetara heltzeko behar duen laguntza zein den jakin eta eskaintzeko, eta, horrez gain, ikasleak bere ikaste prozesuan duen bilakaera ezagutzeko.

Ikasleari bere jardueraren inguruan hausnartzen eta bere ikaskuntza hobetzeko estrategiak identifikatzen laguntzeko informazioa eskaintzen dio. Etengabeko ebaluazioaren bitartez, ikasleak helburuak eta horien lortze maila ezagutuko dituzenez, helburuen lorpenerako eta jardueretan sakontzeko hausnarketa bermatuko da, ikasleari bere aurrerapena finkatzen lagunduz. Bestalde, helburu berriak lortzeko beharrezkoak dituen estrategiak identifikatzen lagunduko zaio. Ikaslearen lanen eta jardueren bilakaera ezagutzeko eta honi jarraipena egiteko hainbat tresna eskainiko ditu ingurune birtualean, laguntza feed-back-

ean oinarrituz. Ebaluazioa ikasteko era bat eta ez hainbeste kalifikazioak eta notak emateko era bat izateko orientatzea. Etengabeko ebaluazioaren helburua da ikasleak bere ikaskuntza prozesua hobetzeko lagungarri izango duen informazioa eskaintzea, eta ez amaierako kalifikazio bat ematea soilik eta horretara dago bideratua gure ebaluazio sistema.

III.1.2.-Lortutako irakaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi Mailako Hezkuntzarako kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.

Hasieran identifikatutako konpetentziak zehaztu eta ikaste emaitzetan definitu dira. Emaitzak, konpetentzia eta ikaste emaitza terminoetan definituta daude, horrela baieztata dezakegun ikasleek programaren helburuak betetzen dituztela. Helburu hauek, Goi Mailako Hezkuntzarako kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daudela.

III.2.-IRIZPIDEA: GOGOBETETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

III.2.1.-Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, titulu txertatzen den gai-ereduarekin eta ingurunearekin bat datorrena.

Urtero onarpen memorian finkaturiko adierazleen jarraipen estua egiten da eta bertan ezarritako tasak mantentzen dira nahiz eta azpimarratzeakoa den ikasleen profila, hau da, gehienak lanean ari diren profesionalak dira eta orokorrean, ez dira masterreko 60 ECTSetan matrikulatzen, masterra bi edo hiru urteren buruan garatzen dute. Egoera honek hainbat adierazleren emaitzak baldintzaten ditu, adb. graduazio tasa edo nazioarteko adierazleak.

III.2.2.-Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeek gogobetetze maila egokia da.

Ikasleen gogobetetzeari buruz, azken ikasturteetako gogobetetze tasa 8,5 punturen gainean dago eta beraz, emaitza oso positiboa dela ondorioztatzen da. Praktiketako kanpo tutoreen gogobetetze tasa ere oso positiboa da. Irakasleen dagokionez, Titulazioaren ebaluazio kualitatiboagoa egiten da, ikasturte bakoitzaren amaieran, tutore mintegi eta masterreko koordinazio batzordean.

III.2.3.-Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.

2017-2018 ikasturteko daturik oraindik ez daukagu. Orain jaso ditugu Ikerfelek, 2016-2017 ikasturtean amaitu zuten ikasleen eginiko inkestaren emaitzak eta ikasleen %75-a daude lanean edo lanean eta ikasten. Datua aztertu eta lan egoera zein den aztertu ondoren, emaitza ona dela ondorioztatzen da.

EMAITZAK" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA.

AZPI-IRIZPIDEA		A	B	C	D
III.1.1.	Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko helburuari zentzuzko moduan egokituta daude.	✓			
III.1.2.	Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.	✓			
III.2.1.	Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, hain zuzen ere titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin koherentea.	✓			
III.2.2.	Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze-maila egokia da.	✓			
III.2.3.	Tituluko egresatuen laneratze-mailaren aiderazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.	--			

3.-HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARGUNEA. JARRAIPENA (Barne Kudeaketa)

III.1.HOBEKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA.

	JATORRIA	PROPOSATZEN DU	PROPOSAMENA	PROPOSAMEN DATA	EKINTZA	EXEKUZIO DATA	ITXIA	EKINTZA IKASTURTEA
1	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Iraila-Urria hilabeteetan saio monografikoa antolatu: tresna digitalak eta horiek erabiltako metodologiari buruzkoak.	2017-07-21	Gaiari buruzko mintegi bat egin zen iaz.	2018-07-10	Bai	2017-2018
2	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Praktiketarako tokiak identifikatzea eta ditugunak kontsolidatzea: Holandako unibertsitatearekin harremanetan segi	2017-07-21	Atzerrian praktikak egin ahal izateko zentroak identifikatu dira.	2018-07-10	Bai	2017-2018
3	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	MU onlinen formazioa kompetentzia digitalen inguruan: Iraila-Urria hilabeteetan saio monografikoa antolatu tresna digitalak eta horiek erabiltako metodologia lantzeko.	2017-07-21	Mintegi bat egin zen kompetentzia digitalen inguruan.	2018-07-10	Bai	2017-2018
4	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Gradu-Master- Doktorego harremana ziurtatzea: Garduondo eta Dokotregoko programaren arteko loturak sendotu	2017-07-21	Doktorego programara egokitzeko beharrezko pausoak eman dira: beken deialdiak eta ikasleen kaptazioa aurtengo programan sartzeko besteak beste.	2018-07-10	Bai	2017-2018
5	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Materien planteamenduaren egokitasuna aztertu: 2.1 materiaren jarraipena egin, eta 1.2 / 1.3 eta 1.7 materiak berrikusi.	2017-07-21	Materien errebisioa egin da eta hainbat egokitzapen egin dira.	2018-07-10	Bai	2017-2018
6	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Practicum eta GBLarteko loturak sendotu: Ikerketa ibilbideko ikasleen praktikak eta ikertaldeak uztartetan sakondu, batez ere HEZIKOM taldearenak.	2017-07-21	HEZIKOMeko bi GBL lotu dira Berrimeteke bi MBL-rekin (Aramaioko herri proiektua eta IKOko berrikuntza prozesuarekin loturiko beste bat).	2018-07-10	Bai	2017-2018
7	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Masterreko Koordinatzailea	Nazioarteko prozesua kontsolidatzea: aurreko ikasturteko esperientziekin jarraitu eta ikasleentzat aukera berriak bilatu.	2017-07-21	Nazioarteko prozesua kontseolidatzen ari da. Italiara ikasleak dagoeneko behin baino gehiagotan joan dira eta praktikak egiteko zentro berriak identifikatu dira.	2018-07-10	Bai	2017-2018

III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.

Ez dira master honetarako hobekuntzarik aurreikusten.

III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEA

	DATA	PROPOSATZEN DU	JATORRIA	INDARGUNEA
1	2018-07-10	Masterreko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Plataforman hainbat hobekuntza egin dira.
2	2018-07-10	Masterreko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Materia batzuetan egindako hobekuntzak (2.1;1.7;1.2) materrari indarra eman diote.
3	2018-07-10	Masterreko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Ekipoa kontsolidatuta dauka eta oso jarrera positiboa du.
4	2018-07-10	Masterreko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Prozedura abiminsitratiboen efizientzia maila altua da.

4.- TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK

IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK

EZ DAGO

I ERASKINA ADIERAZLEAK

	2014-2015	2015-2016	2016-2017	2017-2018	Emaitzen Balorazioa ¹	Oharrak
Eskaintzen den plaza kopurua guztira	20,00	20,00	20,00	20,00	●●●●	
Espainiar titulua sarbide duten ikasle kopurua (ikasle berriak)	14,00	24,00	23,00	21,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle kopurua guztira	34,00	39,00	47,00	47,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle kopurua (denbora osoko ikaslea)	5,00	9,00	3,00	5,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle kopurua (denbora partzialeko ikaslea)	29,00	30,00	44,00	42,00	●●●●	
Ikasleen inskripzioak	17,00	30,00	35,00	51,00	●●●●	
Gutxieneko sarrira nota	6,21	6,15	6,25	6,30	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua (gazt)	1,00	3,00	2,00	1,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua (denbora osoko ikaslea -gast)	1,00	0,00	0,00	0,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua (denbora partzialeko ikaslea -gast)	0,00	3,00	2,00	1,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua (eusk)	13,00	21,00	21,00	20,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua (denbora osoko ikaslea -eusk)	4,00	8,00	3,00	6,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle hasi berrien kopurua denbora partzialeko ikaslea -eusk)	9,00	13,00	18,00	14,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle berriak	14,00	24,00	23,00	21,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle berriak (denbora osoko ikaslea)	5,00	8,00	3,00	6,00	●●●●	
Matrikulatutako ikasle berriak (denbora partzialeko ikaslea)	9,00	16,00	20,00	15,00	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (emakumezkoak)	-	0,00	0,00	0,00	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (gizonezkoak)	-	0,00	0,00	0,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (emakumeak)	17,00	13,00	15,00	12,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (gizonezkoak)	11,00	13,00	8,00	10,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (emakumeak)	10,00	10,00	10,00	7,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (gizonezkoak)	10,00	10,00	6,00	7,00	●●●●	
Irakasle lantaldearen egonkortasuna	%78,26	%80,76	%95,23	%86,36	●●●●	
Irakaskuntza egiaztapena duen irakasle kopurua	-	9,00	10,00	10,00	●●●●	
Ikasle/irakasle ratioa	1,21	1,5	2,04	2,13	●●●●	
Ebaluazio Tasa	72,62	70,46	82,29	86,06	●●●●	
Ebaluazio Tasa (denbora osoko ikaslea)	84,45	74,03	100,00	100,00	●●●●	
Ebaluazio Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	62,27	67,87	79,44	82,21	●●●●	

Errendimendu Tasa	72,62	69,84	81,90	86,06		
Errendimendu Tasa (denbora osoko ikaslea)	84,45	72,55	100,00	100,00		
Errendimendu Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	62,27	67,87	78,89	82,21		
Arrakasta Tasa	100,00	99,11	99,53	100,00		
Arrakasta Tasa (denbora osoko ikaslea)	100,00	98,00	100,00	100,00		
Arrakasta Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	100,00	100,00	99,43	100,00		
Uzte Tasa	7,14	12,50	4,34	19,04		
Uzte Tasa (denbora osoko ikaslea)	0,00	12,50	0,00	0,00		
Uzte Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	11,11	12,50	5,00	25,00		
Graduatze Tasa	35,71	25,00	52,63	78,26		
Graduatze Tasa (denbora osoko ikaslea)	100,00	62,50	100,00	100,00		
Graduatze Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	0,00	6,25	43,75	75,00		
Eraginkortasun Tasa	76,04	97,16	79,68	96,30		
Eraginkortasun Tasa (denbora osoko ikaslea)	100,00	100,00	100,00	100,00		
Eraginkortasun Tasa (denbora partzialeko ikaslea)	71,74	92,78	76,36	95,32		
Ikasleen gogobetetze maila	8,36	8,45	8,52	8,61		
Ikasle-Trukea. Atzerritik etorritako ikasle kopurua	0,00	0,00	0,00	0,00		
Ikasle-Trukea. Atzerrira bidalitako ikasle kopurua	0,00	1,00	1,00	1,00		
Egresatutako pertsonen gogobetetze maila	-	-	-	-		Ez dira oraindik datu hauek kalkulatu.
Enplegu tasa (emakumezkoak)	-	-	%75	-		
Enplegu tasa (gizonezkoak)	-	-		-		
Langabezia tasa (emakumezkoak)	-	-		-		
Langabezia tasa (gizonezkoak)	-	-	%25	-		
Ahokatutako enpleguaren % (emakumezkoak)	-	-	-	-		
Ahokatutako enpleguaren % (gizonezkoak)	-	-	-	-		

Emaizak ebaluatzeko, honako kodea erabiliko da:

- Adierazleak azaltzen duen joera bat dator espero zen emaitzarekin. Praktika onak identifika daitezke.
- Alde txiki bat dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa izan daiteke neurriren bat hartzea.
- Alde nabarmena dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa da ekintza-zuzentzaileak bideratzea.